

DONOSTIALDEKO ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA OSATU DU HERRITAR TALDE BATEK

- Donostialdeko guraso, irakasle eta herritar desberdinek bat egin dute plataforma osatzeko, Donostialdeko eskola publiko guztietako kideak batuz.
- Plataformaren helburua Donostialdeko eskola publikoaren aldeko herritarren elkargunea izatea da, publikoak hezkuntza-sistemaren ardatza izan behar duela aldarrikatuz.

Donostia, 2023ko otsailaren 7a.

Donostialdeko guraso, irakasle eta herritar desberdinek bat egin dute Donostialdeko Eskola Publikoaren Aldeko Plataforma osatzeko. Herritar talde heterogeneo honek, Donostialdeko eskola publiko guztietako kideak batzen dituenak, Euskal Eskola Publikoak behar duen guztion babesa eta bultzada aldarrikatu nahi du.

Plataformaren manifestuan argi adierazten den bezala (ondoren atxikia), Euskal Eskola Publikoa denona eta denontzat den sistema bakarra da, gizarte kohesioaren berme dena. Jakin badakigu, ikasle zaurgarrien banaketaz hainbeste hitz egiten den garai hauetan, segregazioa ez zela arazo izango publikoa sistema nagusia balitz. Kontua ez da mota bateko edo besteko ikasleak banatzea, **egungo eredu duala blindatzen jarraituz**, baizik eta eskola publikoaren sare orekatu eta indartsu bat eraikitzea. Euskal eskola publikoa orekatzailea, doakoa, anitza, inklusiboa, kulturartekoa, kohesionatzailea, laikoa, euskalduna eta kalitatezkoa baita. Horregatik, Donostialdeko Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak adierazi nahi du Euskal Eskola Publikoak hezkuntza-sistemaren ardatza eta erdigunea izan behar duela, hitzez ez ezik, ekintzez ere.

Donostian eskola publikoan ikasleen erdia soilik dagoela kontuan izanik, mezu honek esangura berezia du Gipuzkoako hiriburuan.

Aurrematrikulazio garaia badatorrela kontuan hartuta, plataformak Donostialdeko gurasoak animatu nahi ditu euren seme-alabak eskola publikoan matrikulatzera. Izan ere, eskola publikoa kalitatezko aukera euskaldun aparta da.

Eskola publikoan matrikulazioa bultzatzeko honako bideoa prestatu dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=4-BAHJuTLEw>

Halaber eskertu nahi dugu bideoan parte hartu duten pertsona guztien prestutasun eta eskuzabaltasuna.

DONOSTIALDEKO ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAREN AGIRIA

Manifestu honen bidez, hezkuntza publikoaren aldeko aldarrikapen sendoa egin nahi dugu, euskal eskola publikoarena, argi baitauekagu babestu beharreko ezaugarriak dituela.

Eskola publikoa mundu guztiaren **hezkuntza eskubidea bermatzen duen sare bakarra da**. Hezkuntza eskubidea ikasle guztiek arrakastaz ikasteko eskubidea da, edozein direla ere haien jatorri edo baldintza sozioekonomikoak, kulturalak edo pertsonalak. Hezkuntza publikoak, **doakotasunean** oinarrituta, **aukera berdintasuna** bermatzen die ikasleei, eta gizarteko egoera desorekatuen **orekatzaile** da.

Eskola publikoak gizarte osoa hartzen du bere baitan eta **aniztasuna** du ikur; hau da, **inklusiboa** da, **integratzailea**. Giza talde guztietako ikasleak hartzen ditu bere baitan, maila sozioekonomiko eta kultural guztietakoak, jatorri geografiko guztietakoak, sinesmen erlijioso guztietakoak... Ildo beretik, gaur egungo gizartearen osaera gero eta anitzagoari erantzuten dio, **kulturartekotasuna** bultzatuta. Horrela bakarrik berma daiteke etorkizuneko herritarrek **gizarte kohesionatu bat** osatzea, bateratuta aurrera egingo duen gizarte bat, eta ez zatituta egongo dena.

Halaber, eskola publikoa eskola **laikoa** da: bertan tokia dute ikasle guztiek, eta norbere sinesmen erlijiosoak, hizkuntza, etnia edo kultura gorabehera, eskola guztien etxea da. Laikoa izanik, tolerantzia bermatzen du, eta modu positiboan errespetatzen ditu pentsamendu askatasuna, kontzientzia eta erlijio askatasuna, baita aukera ideologiko, politiko eta moralak ere. Hortaz, **herritar kritikoak hezten ditu**, euren kabuz pentsatzeko eta erabakitzeke gai izango direnak; horretarako, batzen gaituzten elementuak indartuz.

Batzen gaituzten elementuetan garrantzitsuena euskara da, ezinbestekoa, eta euskal eskola publikoak **euskara du ardatz**. Euskara elementu kohesionatzaile nagusia da, gure artean zubiak eraikitzen laguntzen digun tresna. Azken hamarkadetan, euskal eskola publikoa izan da, hain zuzen ere, ikasle gehien euskaldundu dituen hezkuntza sarea. Eta gaur egun funtsezko eragile bilakatu da euskalduntze prozesuan.

Eskola publikoak beren nortasuna garatzeko aukera ematen die ikasleei, ezagutzak transmititzen dizkie eta ikasleak bizitzarako prestatzen ditu. Ikastetxearen testuingurua zein den, helburu horiek modu batera edo bestera erdiesten dira, eta irakasleek lan itzela egiten dute ildo horretan, beren ikasleen testuinguru eta beharretara moldatzen saiatuz. Hortaz, euskal eskola publikoa **kalitatezko hezkuntza aukera** bat da, ikasle bakoitzaren beharrei erantzuten saiatzen dena.

Labur esanda, **euskal eskola publikoa orekatzailea, doakoa, anitza, inklusiboa, kulturartekoa, kohesionatzailea, laikoa, euskalduna eta kalitatezkoa da. Eskola publikoa denona eta denontzat da**. Denona da, hura osatzen dugun langileek, ikasleek eta familiek elkarlanean lan egiten dugulako bertan, eta denontzat da, ateak zabalik dauzkalako mundu guztiarentzat. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak zein erakunde publiko guztiek lehenetsi, sendotu eta zabaltzea beharrezko luke, herritar guztion eskola den heinean.



DONOSTIALDEKO
ESKOLA PUBLIKOAREN
ALDEKO PLATAFORMA



Hau guztia dela eta, gaurko ekimen honek **Donostialdeko ikastetxe publikoak elkarren artean saretzea eta sendotzea du helburu**, arestian jasotako ildoetara jarraituz.

Donostia, 2022ko abenduaren 15a